



## **ORDUTEGI-AUKERAK eta 2008/2009 IKASTURTETIK AURRERA OLABIDE IKASTOLAN IZAN LITEKEEN ORDUTEGI HORIEN APLIKAZIOA**

Artezkarieta Kontseiluaren erantzukizuna da gure ikastolako hezkuntza-komunitate osoari eragiten dizkioten arazoak ebaztea, eta ahal bada, izan litezkeen irtenbideak aurretik ematea.

Hori horrela izanik, urtebete baino luzeago ari da Kontseilu hau aztertzen egungo ordutegi-egitura bai eta hezkuntzan, garraioan, jantokian eta eskolaz kanpoko jardueretan duen eragina ere.

2001. urtean berrantolatu genituen azken aldiz eskola-ordutegiak; jasaten ari ginen ekonomia-krisia, batetik, eta, bestetik, garraioarekiko geneukan neurritz kanpoko mendekotasuna izan ziren orduko arazoak. Garai hartan 24 autobus behar genituen ikasleak garraiatzeko, nahiz eta ikasle kopurua gaur egungoaren antzekoa zen. Berrantolaketa hari esker, 13ra ekarri genuen kopurua, eta, hala ere, Gasteiz ondoko herrietara zabaldu genuen eskaintza. Neurri hark ekonomia-egonkortasuna ekarri zion ikastolari, eta garraio-konpainiekiko mendekotasuna arindu egin zen.

Harrezkero 6 urte joan dira, eta ordutik hona gertatutakoari buruzko hausnarketa eginez gero, ikusten dugu beharrezkoa dela ordutegiaren aldaketa bultzatzea, ikastolan gaur egun dauden familiek eta, oro har, Gasteizko gizarte osoak dituzten beharrei hobeto erantzun ahal izateko.

Baina zertan oinarritzen gara hori esateko?

Gure ustez, azken urteotan aldaketa handiak izan dira, eta, horrez gain, egiturazko arazoak jasaten jarraitzen dugu, eta arazo horiei konponbidea ematea da gure zeregina. Eta gure zeregina da, bestalde, Gasteizko eta Arabako familien seme-alabei aukera ematea ahalik eta era egokienean.

Honakoak dira, beraz, eta betiere gure ustez, gaur egun inguruan ditugun arazoak:

- a) Gasteizek eta bere ingurumariak, gure ustez, utzi egin diote landa-guneetako dinamika edukitzeari, eta industria- zein zerbitzu-hirien ohiturak bereganatu ditu
- b) Hiria haziz doa, bai biztanle kopuruari dagokionez, baina baita, eta batez ere, hedaturari dagokionez. Alde batetik, badira hiri-inguruko zenbait auzo, Lakua edo Sansomendi, esaterako, populazio-dentsitate handikoak; eta, beste alde batetik, badira auzo sortu berriak ere, adibidez, Salburua eta Zabalgana. Auzo horietako guztietako populazioaren ezaugarri bat da gehiengo direla eskolatze-aldiko seme-alabak dituzten familiak.
- c) Hiri-inguruko auzo horietara autobus-zerbitzua egiteko, duela sei urte baino denbora dezente gehiago behar da. Alde batetik zabaldu egin da hedaturaz, eta, bestetik, gure artean lehen baino familia gehiago dago toki horietan bizi dena.
- d) Auzo berriak sortu izanak betiko erronkara garamatza: auzo horietako eskaerari erantzun behar diogu. Horrek guztiak ondorio du garraio-zerbitzua gero eta konplexuagoa, garestiagoa eta zailagoa izatea.
- e) Gaur egungo familiek eskatzen duten zerbitzu-mota eta duela sei urte eskaini genuena oso desberdinak dira. Gaur egun edozein ikaslek eduki ditzake 3, 4, 5 txartel edo gehiago, eta, beraz, beste hainbeste linea erabil ditzake; familien eta ikastolaren beraren konplexutasunaren ondorio bat da hori. Eta konplexutasun horrek berekin dakar, batetik, eskola-ordutegia betetzeko arazoak sortzea, batez ere bazkaldu ondoren DBHn, eta, bestalde, garraio-zerbitzuak gero eta luzeagoak izatea.

- f) 2001. urtean 250 ikasleri ematen genien jaten ikastolako jantokian; gaur egun 550 ikasleri ematen diegu. Familia gazteenek eta ikastolara etorri berri direnek eskatzen dute gehien zerbitzu hori.
- g) Jantoki eta garraio zerbitzuek eskaera handia dute, eta ez dute asebetetzen. Asetasun inkestetako adierazleek zertxobait egin dute gora, baina ez egiten den ahaleginaren ondorioz igo beharko luketen beste. Gure iritziz, egitura-aldaketak egin behar dira zerbitzu horietan, hobetu daitezten.
- h) 2001ean egin genuen ordutegi-berrantolaketak eragin zuen DBHko ordutegiak desegokiak izatea ikasleen hezkuntza-beharretarako.
- i) Ekonomia-krisia gainditu dugu, eta egoera egonkorra dugu, baina gure ekonomia-eremuek ez dute ahalbidetzen gordekinik inbertsio-beharrei erantzuniko dienik; horretarako, kuota igoera handia beharko litzateke.
- j) Eguerdietan 2 ordu eta 15 minutu behar dira 750 ikasle (ikastolako ikasleen erdiak) eraman eta ekartzeko, etxean bazkal dezaten; kasurik onenean, 45 minutu behar dituzte, eta ingurumarietan bizi diren ikasleek, berriz, ordu eta erdi. Eta, gainera, kostu handia dauka.
- k) Hiriak eguerdian izaten duen zirkulazio-kolapsoaren eragileetako bat gara, eguerdian batez ere. Gure ustez, ingurugiroan eta mugigarritasunean duen eragin negatibo hori nola murriztu aztertu behar dugu, autobuseko joan etorriak murriztuz eta bizikleta edo horrelako garraiobideak bultzatuz.

Horregatik bada, eskatzen dugu Olabideko familia guztiek azter ditzatela arazo horiek, eta erabaki, dezatela, erantzukizunez ea zer irizten dioten 2008-2009 ikasturtetik aurrera eskola-ordutegia aldatzeari.

Artezkari Kontseiluak argi ikusten du ordutegia aldatu behar dela eta lanaldi jarraia ezarri behar dela, baina behin betiko erabakia ez du hartuko bazkideen iritzia jakin arte. Badakigu familia batentzat baino gehiagorentzat gauzarik garrantzitsuena dela seme-alabekin bazkaltzea, eta une hori izaten da askorentzat guztiak elkartu ahal izatekoa. Horientzat bigarren mailakoak idazki honetan adierazitako alderdiak, baina gure zeregina da gehien gaur egungo eta etorkizuneko arazoa konpontzeko irtenbideak proposatzea; baina, era berean, gure zeregina ere bada familia horiei aukerak eskaintzea egoera berrira egokitu daitezten.

# A AUKERA

## LANALDI JARRAIA

Beste herri batzuetan ez bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko egungo legediak ez du ahalbidetzen lanaldi **jarraitua** derrigorrezko mailetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH); ezin da, beraz, Batxilergoan daukagun bezalako ordutegirik eduki.

Lanaldi jarraituan, ikasleek bazkaldu aurretik jasotzen dituzte eskola guztiak, eta bukatutakoan etxera joan ohi dira.

Zer izango litzateke **lanaldi jarraia**? Bazkalaurreko eta bazkaldu ondorengo saioak dituen. Bazkaria ikastetxean egiten dute ikasle gehien-gehienek; hartara ez dira joan-etorrian ibili behar, eta ez dute denborarik eta dirurik galtzen. Gure ustez, aukera hobea da eta izango da familia gehienentzat antolaketarako.

Zein ordutegi proposatzen dugu?

ETAPA	GOIZEZ		ARRATSALDEZ	
	Sartu	Irten	Sartu	Irten
<b>Haur Hezkuntza(2 – 6)</b>	8:55	12:40	14:00	15:30/16:00
<b>Lehen Hezkuntza (6 – 10)</b>	8:55	12:40	14:00	15:30/16:00
<b>Lehen Hezkuntza (10 – 12)</b>	8:55	13:20	14:30	15:30/16:00
<b>DBH (12 – 16)</b>	8:10	13:20	14:30	16:20/16:40
<b>Batxiler (16 – 18)</b>	8:10	15:00		

Ordutegi hori egin daiteke eguerdian denbora aurrezten delako; horregatik diogu ordutegiak gutxi gorabeherakoak direla. Ezin izango dugu zehatz-mehatz esan ikusi arte hori dela gehienek aukeratu dutena; orduan antolatu ahal izango ditugu pertsonak, ikasgaiak, denborak eta bitartekoak. Ostiraleko ordutegia gaur egungo izatea aurre ikusten dugu denontzat eta asteazken arratsaldetan, DBHko kasuan, berdin.

Seme-alabak arratsaldeko ordu horietan jaso ezin dituzten familientzat eta lan-ordutegiarekin bateratzerik ez dutenentzat, aztertzen ari gara, mailen arabera, zaintza edo interesgarriak diren tailerrak eskaintzea aukeran. Ekintza osagarriak arratsaldeko klaseak bukatu eta gero egingo dira.

Jakina, ikastolatik hurbil bizi diren ikasleek etxera joan nahi badute bazkaltzea, hori egiteko aukera izango dute, betiere gurasoen ardurapean.

# **B AUKERA**

## **LANALDI ETENA**

Gaur egungo formatuari eta ordutegiari eustea izango litzateke, baina Curriculum berriak eskatzen dituen eskakizun berrietara egokituta.

Beraz, honakoak izango lirateke ordutegiak.

<b>ETAPA</b>	<b>GOIZEZ</b>		<b>ARRATSALDEZ</b>	
	<b>Sartu</b>	<b>Irten</b>	<b>Sartu</b>	<b>Irten</b>
<b>Haur Hezkuntza(2 – 6)</b>	8:55	12:40	14:55	16:40
<b>Lehen Hezkuntza (6 – 10)</b>	8:55	12:40	14:55	16:40
<b>Lehen Hezkuntza (10 – 12)</b>	8:10	13:20	15:25	17:20
<b>DBH (12 – 16)</b>	8:10	15:00		

DBHko ordutegiari dagokionez, asteazkeneko espezifitateak, eskola-zama orokorrik gabeak, bere horretan iraungo luke, eta ostiraletan, egungo ordutegiak mantenduko genituzke.

Batxilergoaren ordutegian, ostiraletan 13:20era aurreratuko litzateke irteera.

Garraio eta jantoki zerbitzua eskainiko litzaieke hala nahi dutenei, orain arte bezala.

Gasteizen, 2007ko abenduaren 11n

**ARTEZKARITZA KONTSEILUA**